



LITERAKTUM

Hitzen hiria

JANE AUSTEN, BIZITZA ETA OBRA
ERAKUSKETA

AIETE KULTUR ETXEA

AZAROA 8 – OTSAILA 2 (2020)

Ordutegia

Astelehenak eta jaiegunak itxita

Asteartetik ostiralera: 16:00-20:30

Gabonetan: 10:00-14:00

Larunbatak: 10:00-14:00 / 16:30-20:00

Igandeak: 10:00-14:00

Aiete Kultur Etxeak, **Literaktum 2019** jaialdiaren eskutik, Jane Austen idazle britainiarrari buruzko erakusketa izango du. Erakusketan, Ingalaterrako Chawton-eko Jane Austen museoko irudien bidez, idazlearen bizitza eta obra biltzen dira. Hampshire konderriko Jane Austenen museoan, idazlea bere azken urteetan bizi izan zen etxea eta bere leku gogokoena da. Idazlearen talentua loratu zen eta bere obra nagusiak idatzi, berrikusi eta ezagutarazi zituen. Aieteko erakusketaren bigarren zati batean, **Harrotasun eta Aurreiritzi** lanaren pasarteak bildu dira **Maite Gurrutxaga** artistak sortutako ilustrazioekin.

Literaktum jaialdiaren barne eta erakusketaren harira, hainbat jarduera antolatu dira. Alde batetik, Espido Freire idazlearen hitzaldia *Querida Jane, querida Charlotte* izenburua duena. María Pilar Rodríguez Deustuko Unibertsitateko irakasleak egingo ditu moderatzaile lana. Bestalde, bi pelikula ikusi ahal izango dira: azaroaren 15ean *La joven Jane Austen* eta azaroaren 22an *Orgullo y prejuicio*.

Jane Austen ingelesezko lehen eleberrigile modernotzat jotzen da eta gaur egun oraindik ere bere lanak bizirik dirau, bere eleberrien zinema eta telebista egokitzapenak lagunduta. Liburuak egileak maisuki kudeatzen dituen elkarriketatik beteta daude, eta garaiko landa gizartea islatzen dute.

Bizitza

Jane Austen britainiar eleberrigilea 1775. urtean jaio zen Steventon herrian, Hampshire konderrian. Bertan, parrokia anglikano bateko erretorea zen bere aita. Erretoreak eta bere emazteak zortzi seme-alaba izan zituzten, horietatik bi bakarrik ziren emakumeak: Jane eta bere ahizpa nagusia, Cassandra. Semeetako bat, Edward, senide aberats batzuek adoptatu zuten, Knight sendiak. Seme propiorik izan ez zutenenez, bera izan zen oinordekoa.

Jane eta Cassandra barnetegi batean egon ziren, baina beren familia arduratu zen batez ere beren hezkuntzaz; piano eta marrazketa tutoreak ere izan zituzten. Austentarrek antzerki emanaldiak antolatzen zituzten, eta inguruko gazte guztiek parte hartzen zuten bertan. Hamabi urterekin Janek bere familia dibertitzeko *Juvenilia* idazten hasi zen, garaiko literaturaren hainbat parodia eginez. Inguruko familien eta bestelako konderrietako senideen bisitaldiak garai hartako errituetoako bat ziren.

Cassandrak hogeitau urte zituenean, ezkontzeko hitza eman zion Tom Fowle apaizgaiari. Hala ere, Fowle gazteak ez zuen Cassandra mantentzeko adinako baliabiderik, eta Karibera joan zen, han aberastasunak lortzekotan. Gaixotasun tropikal baten ondorioz hil zen bertan.

Janek ere hogeitau urte zituenean, Tom Lefroy ezagutu zuen, irlandar gazte bat. Janek Cassandrari bidalitako eskutitzak ikusita, badirudi bata bestearenganako erakarpene sentitzen zutela, baina Tomek harremana formalizatzeko nahikoa dirurik ez zuenez, urrutira bidali zuten eta ez zen inoiz itzuli. Orduan, Jane Austen Samuel Blackall erretorearekin

elkartzen saiatu zen Lefroyren izeba bat, baina Jane ez zegoen interesaturik. Handik gutxira, bere eleberrien lehenbiziko bertsioak idazten hasi zen.

1800. urtean, beren aitak Bath hirian erretiroa hartzea erabaki zuen, bere emaztearekin eta alabekin batera. Bathen bizi zirenean, udan kostaldera joaten ziren, eta opor haietan, gizon bat ezagutu zuen. Oporrak amaitzean, berriro elkar ikustea erabaki zuten, baina gizona hil egin zen.

Garai hartan, Jane Londresera bidaiatze zuen, bere anaia Henry ikustera, eta antzokietara eta erakusketetara ere joaten zen bertan. Ezkontzeko proposamen bat egin zioten, berak onartu egin zuen, baina hurrengo goizean atzera egin zuen.

1805. urtean bere aita hil zen. Alarguna eta bi alabak Frank anaiaren etxera joan ziren bizitzera. Itsasgizona zen Frank eta Southamptonen ezkondu zen.

1809. urtean, Edward Austen Knightek behin betiko ostatua eskaini zien bere amari eta arrebei, hain zuzen ere Hampshire konderrian zituen lurzatietan, zehazki, Chawton udalerrian kokatutako Chawton Cottage etxean. Hampshire konderrira itzultzea inspirazio handia izan zen Jane Austenen idazkeran.

1816. urtean, Jane gaixotu egin zen, eta infekzio baten ondorioz, elbarri geratu zen. Hala ere, *Persuasion* idaztea lortu zuen, eta 1817. urtean hil zen, 41 urte zituela.

Obra

Bere anaia Henryren laguntzarekin, 1811. urtean, 36 urte zituela, *Sense and sensibility* argitaratzea lortu zuen. Eleberria «by a lady» (Lady batek) sinatuta ageri zen. Handik bi urtera, 1813. urtean, *Pride and Prejudice* (euskaraz *Harrotasuna eta aurrejuzguak* gisa itzulita) obra argitaratzea lortu zuen, “*Sense and sensibility* eleberriaren egilearen eskutik”.

Bere bi eleberrien arrakastak bultzatuta, Janek idazten jarraitu zuen: 1814. urtean *Mansfield Park* argitaratu zuen, eta 1815. urtean *Emma*. Bere jarraitzaileetako bat Erresuma Batuko printze erregeordea zen, eta azken horri eskaini behar izan zion *Emma* eleberria.

1818. urtean, Jane Austen hil ondoren, Henry Austen arduratu zen *Northanger Abbey* eta *Persuasion* eleberriak argitaratzeaz.

Maite Gurrutxaga Otamendi, *Harrotasuna eta aurrejuzguak* istorioaren ilustratzailea erakusketan

Maite Gurrutxagak (Amezketeta, 1983), Arte Ederrak ikasia da Leioako EHU-n eta Bartzelonako UB-n. Arte Ederrak ikasten ari zela ezagutu zuen ilustrazioaren mundua, eta erabaki hori zela egin nahi zuena, ilustratzailea izan alegia. Horregatik, ilustrazioa ikasi zuen Bartzelonako *Escola De La Dona* zentruan.

2008. urtean hasi zen liburuak ilustratzen. Tartean egin ditu diskentzako ilustrazioak, heldu, gazte eta haurrentzako liburuetako irudiak, aldizkarietarako kolaborazioak...etabar.

2009. urtean Etxepare saria irabazi nuen Mikel Gurrutxagaren ondotik, *Alex, nire laguna* album ilustratuarekin, ondoren Pamielak eta Kalandrakak argitaratu zutena 2010. urtean.

2014. urtean Euskadi saria jaso zuen *Habiak* komikiagatik eta 2015ean, Lazarillo saria *Martin* album ilustratuarekin.